# Bazen Lagun bat, aditzek sorgindu zutena: Pedro de Yrizar

**Iñaki Gaminde**

Euskal Herriko Unibertsitatea
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
igaminde@bips.bi.ehu.es

**Abstract**

In this article the author remembers the work of the late scholar Pedro de Yrizar, bringing to our attention the usage and geographical extension of certain particularities of the Basque verb.

**Laburpena**

Artikulu honetan euskal aditzaren gaineko berezitasun batzuen erabilera eta hedadura geografikoa aitzakiatzat hartuta, berrikitan hil den Pedro de Yrizar ikertzailearen lana gogotan erabili nahi dugu.

**Hitz gakoak:** Morfologia, aditza, dialektologia.

## 1. Sarrera

Urte berriarekin bateratsu hil zaigu Pedro de Yrizar euskalaria eta aditzaren ikertzaile sutsua. Mendebalde Kultura Alkarteak 1999. urtean, Ricardo Badiolak egindako lan bikainaren bidez (2000), omenaldia egin bazion ere, zilegi izan bekit oraingoan zer edo zer idaztea haren oroimenez, nahiz eta gurea moduko aldizkarietan honelakoak ohikoegiak izan ez.

1984. urtean, zelan edo noren bidez gogoan ez daukadala, hasi zen gure arteko harremana; bera ordurako gizon edadetua, ni hogeita sei urtekoa; bera ikertzaile zaildua, ni hasi berria. Buruz buru elkar ezagutzeko parada 1999. urtera arte ez genuen izan, baina orduan hasiko harreman horrek kasik hogei urtean iraun du.

Zergatik ez dakidala haren gutun guztiak gorde ditut denboraldi honetan zehar eta 1984.eko lehenengo hartatik 2003. urteko gabonen zuzuan, bere FLVeko azken artikuluaren separatarekin batera (Yrizar 2003), bidaliko azkenera arte ardatza aditza izan da denetan. Gutun gehienak 1984-1988 bitartekoak dira, orduan ibili zen bizkaieraren aditzak lantzen bereziki; geroago berak trinko jarraitu zion aditzaren ibilbideari eta ni, ostera, euskararen beste sorgin batzuek hara eta hona erabili naute.

Asko izan dira gurean aditzaren lilura eta xarma sentidu dutenak eta haren oroimenez idazteko deliberoa hartuta, aditza behar da izan ezinbestez gaia. Hiru ataltxo besterik ez ditut gogotara ekarriko; adizki aoristikoak, "ze","zein" eta subjuntiboen erabilera eta, azkenik, "eragon" aditza.

Ez da honezaz idazten dudan lehen aldia (ez ahal da atzena izango!) eta unea baliatu gura izan dut han hor hemenetan esan ditudanak eta aldi honetan batu ditudan datu berriak ordenatzeko eta plazaratzeko.

## 2. Adizki aoristikoen hedadura

Era honetako adizkiak guztiz interesgarriak direna ezin ukatuzkoa da, ikertzaile askok erabili dituzte; gainera idazle klasikoek erabili izanak zahar kutsua ematen die. Irigoien zenak (1985) honako hau esaten zuen:

"Está claro para todos los estudiosos de las formas verbales auxiliares del tipo (hil) zedin, (har) zezan, etc., usadas para el modo indicativo, - en la actualidad tiene únicamente valor de subjuntivo -, antiguamente eran comunes también para las hablas vizcaínas, y no sólamente para el labortano y el suletino, pero ahora son absolutamente arcáicas con ese valor en todas partes desde hace ya tiempo considerable ...."

Gaur egun adizki hauek indikatibokoekin batera bizi dira eta, ikerketa sakonik egin barik behintzat, ez dirudi ezelako bereizkuntzarik egiten denik euren artean.

Balio aoristikoaz erabiltzen ez badira ere, adizki horiek franko erabiliak izaten dira; kasu batzuetan, zenbait herritan, indikatiboari zegozkiokeen adizkiak desagertu egin dira eta euren ordez subjuntiboari dagozkionak erabiltzen dira.

Sasoi batean, Irigoienek dioen bezala, esparru zabalagoan erabili izan dira (Nafarroan eduki duten hedadurarako Gaminde (1987) eta Yrizar (1992a, 1992b) ikus daitezke).

Azkuek (1969a) bere sasoian Plentzia aldean aurkitu zituen eta bere Morfologian honakoak irakur daitezke:

"Esan neion dicen en la comarca de Plencia por esan neutsan yo se lo dije (-2, 563.)"

"Sólo en un rincón paradisiaco de nuestra hermosa Nabarra y en limitadas zonas de Bizkaya como Bakio,

 © Mendebalde Kultura Alkartea, 2004 

Lemoiz y Barrika, se oyen flexiones de verbo auxiliar de indicativo en que figura el reflexivo ki (-2, 575.)"

Aurreko aipuaren orrialde berean NOR-NORI sailari dagozkion Barrikako adizki hauek ematen dizkigu:

- ekide → ekidaza
- ekio → ekioza
- ekigu → ekiguza
- ekizu → ekizuza
- ekie → ekieza

Bizkaian gaur egun, intentsitate desberdinez bada ere, dauzkagun datuen arabera ondoko herrietan erabiltzen dira era honetako adizkiak: Bakio, Lemoiz, Gorliz, Barrika, Sopela, Berango, Getxo, Leioa, Erandio eta Bilbo (Larraskitu eta Buja auzuneak).



1. Irudia: Adizki aoristikoen hedadura.

Laguntzaile mota guztietan agertzen da erabilera hau "nor", "nor-nori", "nork-nor" eta "nork-nori-nor" sailetan. Orain arte "nor" sailekoak idazleen testigantzen bidez baino ez genituen ezagutzen; azkenaldian Berangon (2004) ere jasotzeko aukera eduki dut. Sailik sail eta herririk herri batu ditugun adizkiak honako hauek dira:

- Nor

Sail honetakoak, lehen esan dudan legez, Berangon baino ez ditut jaso eta jakina indikatiboaren adizkiekin batera edo nahastean erabiltzen dira; ondoko esaldietan batzuk agertzen dira:

"Aittu bedarra, bakixu len eskus ba, eta or, a, mendiñ, ibil **gaittesen**, oniño ni, a, es eskondute ya egon **gaittesen**, baya yote **nitten** aitteri tte laguntxen se ni orko seran, a, eta yarritte gausela seran, ukus gendun sube, bero itteun, e? baya sube gaure alboti pasata urera, bekalden egon san, a, erreka bat eta urera yoten" - (Aditu belarra, badakizu lehen eskuz ba, eta hor, mendian ibili ginen, oraindino ni, ez ezkonduta ja egon ginen, baina joaten nintzen aitari eta laguntzen ze ni horko zerean, eta jarrita gaudela zerean, ikusi genuen sugea, bero egiten zuen, e? baina sugea geure albotik pasatuta urera, beheko aldean egon zen, erreka bat eta urera joaten)

"Txiliñeas eta tan-tan, eta biden ukusten basendun, igual yote **saitten**, etorte san abade orreas, txiliñe yoten, eta seraas, a, monangilloas etorte san, a laguntxe yotzena, biden parate **saitten** beluneko, pasa arten" - (Txilinarekin eta tan-tan, eta bidean ikusten bazenuen, beharbada joaten zinen, etortzen zen abadea horrekin, txilina joaten, eta zerarekin, meza-lagunarekin etortzen zen, hura laguntzen ziona, bidean paratzen zinen belauniko, pasatu arte)

- Nor-nori

Uribe Kostako herrietan sail honetakoak sarrien entzuten direnak dira; herri bakoitzeko jaso ditugun adibide batzuk eta euron aldakiak aurkeztuko ditugu:

1. **Bakio** (Gaminde 1999): ekiden (zitzaidan), ekidxon (zitzaion), ekiun (zitzaigun), ekigusen (zitzaizkigun)

2. **Lemoiz**: ekiden/eikiden (zitzaidan); aikion/eikion (zitzaion); ekiun (zitzaigun); ekidesan (zitzaizkidan)

3. **Gorliz**: eikion (zitzaion); ekien/eikien (zitzaien)

4. **Barrika**: ekiden/eikiden/eikide (zitzaidan); ekion/eikion/eikio (zitzaion), ekiun/eikiu (zitzaigun), eikie (zitzaien); eikiesa (zitzaizkien); e.a. (Esan dezadan bide batez eta kuriositate moduan, azken -n bako adizkiak Azkuek izan zuen informatzaile beraren alabari eta beronen lobari jaso nizkiola. Artikulu honen mugak gainditzen badira ere, aipa dezagun -n bako adizkiak Sopelan, Barrikan, Getxon eta Bermeoko Mañu auzoan informatzaile batzuek erabiltzen dituztela; bestalde, alokutiboetan ere agertzen dira Ubiden, Otxandion eta Aramaioko Oletan.)

5. **Sopela**: ekide(n) (zitzaidan), eikio/ekion (zitzaion), ekigun/ekiun (zitzaigun)

6. **Leioa**: yakiten (zitzaidan); yakion/ekion (zitzaion); yakiun/ekiun (zitzaigun); yakiosen/ekiosen (zitzaizkion)

7. **Erandio (Arriaga auzoa)**: akiden (zitzaidan), akion (zitzaion), akigun (zitzaigun)

- Nork-nor

1. **Bakio:** neidxen (negian/nendun), neidxien (negian/nenduen): engañe neidxen - (engainatu ninduen); eroan neidxien - (eroan ninduten).

2. **Sopela:** nengiñ/negiñ (ninduen); nengien (ninduten)

3. **Berango**: nengiñ/negiñ (ninduen); nengien (ninduten)

4. **Getxo:** nengin (ninduen); nengien (ninduten)

5. **Leioa** nengin (ninduen); nengien (ninduten); gengisen (gintuen); sengidesen (zitudan); sengisen (zituen); e.a.

6. **Bilbo (Buja):** gaidxen/geidxen (zuen); gaidxien/geidxien (zuten)

7. **Bilbo (Larraskitu):** gixun/geixen/gixen (zuen); gixien (zuten)

- Nork-nori-nor

1. **Barrika:** eyo (eutsan/zion)

2. **Berango:** eyon (eutsan/zion)

3. **Leioa:** neyon (neuntsan/nion), geyon (geuntsan/genion), eyon (eutsan/zion)

4. **Bilbo (Larraskitu):** gitxon/gixon (eutsan/zion); gitxuen/gixuen (eutsien/zioten)

## 3. ZE eta ZEIN subjuntiboarekin

Bizkaiko mendebalderengo lurraldeetan subjuntiboarekin batera, ohiko erabilera sintaktikoez gain, bada bizirik dirauen beste bat. Uribe Kosta eta Mungialdean "ze"rekin batera agertzen da eta Orozko, Hego Uribeko herrietan "zein"ekin; biek esangura eta ñabardura bertsuak dauzkate.

"Ze" da gehien aipatu dena bibliografian. Idazle klasikoen artean eta testu zaharretan askotan agertzen da eta (Mitxelenaren (1964) lanean hainbat adibide ikus daiteke); hona hemen adibide batzuk:

- miyac çebez buruen calte (1596 R y S)
- esteusut esan sedeguidisula ecarri orrelaco comparaçiñoyric? (Mikoleta, 23)
- faltadu çedaguiela zordabeen dezenziari, edo onrreari (Kapanaga, 50)
- iñori cedaquiola ecer ostu, edo quendu (XVII. mendeko katekima, 93, Mitxelena 1954)

Azkue izan da honen gainean arduratu den ikertzailetariko bat eta bere hiztegian esate baterako honako hau dinosku (1969b):

"Transposición de la negación EZ como prefijo del verbo conjugado. Todavía está muy en uso en B -b -g -mu -pl."

Morfologian beste hauek ere esaten ditu:

"Curiosísima es la metátesis que sufre en flexiones de imperativo y subjuntivo el elemento modal ez. ... Hoy están todavía en uso en las comarcas de Munguia, Mundaka y limítrofes. (2 liburukia, 748.)"

Beste nonbait esan genuen moduan (Gaminde 1987), gaur egun erabiltzen den lekuetan erdararen "no sea que" delakoaren parekidea da; kontutan hartu behar da, bestalde, herriotan ZE-rekin batera EZ ere agertzen dela. Testu zaharretan bestela bazen ere, gaur subjuntiboarekin baino ez da erabiltzen. Gurean oso argi bereizten dira honako esaldi biok:

- Koyu señe yausi esteitten

  *(Koiu seina jausi ez daiten)*

- Koyu señe yausi se ditten

  *(Koiu seina jausi ze daiten)*

Edo ezbaian inor lotu ze dadin, honako beste hau ikus daiteke:

- Koyu gordosola euri eiñ ze deiñ

  *(Koiu guardasola euri egin ze daian)*

Argi dago, norberak guardasola hartuta zein hartu ezta, euri egin behar badu berdin egingo duena. Hona hemen herrietan jaso ditugun adibide batzuk[1]:

- Ate ixi dot otzittu se deitten (Barrika)

  *(Atea itxi dot hoztu ze daiten)*

- Koxu ume yausi se ditxen (Gorliz)

  *(Koiu seina jausi ze daiten)*

- Eta gero txarameltxue, arek falle sedidxen (Arrieta)

  *(Eta gero txarameltxua, harek huts egin ze daian)*

- Karie be bai, ori ixeta san, a koipie berak ekarteuen koipie, sertu sedidxen, alperrik galdu sedidxen (Arrieta)

  *(Karea be bai, hori izaten zan, ha koipea bera ekarten eban koipea, zertu ze daian, alperrik, galdu ze daian)*

- Estu batu bear ixete san gero solte sedixen (Bakio)

  *(Estu batu behar izaten zan gero soltau ze daiazan)*

- Billurre ixete san lelau, solta ta, tripeti sartu se ditxen (Jatabe)

  *(Bildurra izaten zan lehenago, soltau eta, tipatik sartu ze daiten)*

- Ori trapun asuntue, odolagas, a, mantxe seditten, baya ostantzean es (Mungia)

  *(Hori trapuaren gorabehera, odolagaz, lohitu ze daiten, baina osterantzean ez)*

- Kontus lapikok yausi sedakixusen (Gatika)

  *(Kontuz lapikoak jausi ze dakizuzan)*

Erabilera hauen adibideak ondoko herri guztietan jaso ahal izan ditugu: Bakio, Meñaka, Arrieta, Meñaka,

[1] Aurkezten ditugun adibide guztiak hobeto ulertzeko era normalizatua bizkaiera literarioaren bidez ematen dugu.

Gamiz-Fika, Fruiz, Mungia, Jatabe, Laukiz, Gatika, Urduliz, Lemoiz, Gorliz, Barrika, Getxo, Berango.



2. Irudia:"ze"ren erabileraren hedadura.

Gorago esaneko moduan, Hego Uribeko herrietan beronen ordez "zein" erabiltzen da adiera honetarako; adibidez:

- Atie sarratu dot seiñ etzie otzittu daitten (Bilbo, Buja)

  *(Atea zerratu dot zein etxea hotzitu daiten)*

Berau aditz partizipio hutsarekin ere erabil daiteke aditza jokatu barik; adibidez:

- Orrek deko billurre sein kendu (Bilbo, Buja)

  *(Horrek dauka bildurra zein kendu)*

Erabilera hau nahikoa zabala da eskualde honetako beste herri batzuetan ere; Zeberiorako Etxebarriaren lana (1991) eta Basaurirako Arretxerena (1994) ikus daitezke; horiezaz ostean Zollon eta Orozkon ere jaso ditugu hainbat adibide:

- Itxixu ori ate ori sein otzitu neiten (Zollo)

  *(Itxi eizu hori ateori zein hotzitu naiten)*

- Bedarra batu bia dot sein eurie in dayen (Orozko)

  *(Bedarra batu behar dot zein euria egin daian)*



3. Irudia:"zein"en erabileraren hedadura

Erabilera honen hedadura, daukagun datuen arabera ondoko mapan ikus daiteke; interesgarria izango litzateke jakitea eskualde bereko garaiteko herrietan erabiltzen den ala ez jakitea:

## 4. Eragon aditza

Eragon aditz hau oroimenaren okoluetan lo zetzakeen luzaro beste lagun batek beren-beregi aipatu izan ez balu bere azken lan handian. Koldo Zuazok (2003, 17. or.) bere lana burutzeko erabili dituen ezaugarrien gainean diharduela adizki honen hedadura Orozkon eta Zeberion mugatzen du. Ele aldizkarian (1988) argitaratuko artikulu baten adizki honen gaineko erabileraz eta hedaduraz arduratu nintzen. Orduko sasoian aldizkari horren funtzioak eta interesguneak argi definitu barik egon ziren eta gerta liteke horregatik inork ez ezagutzea.

Hala ere, aldizkaria sortu zenean, Yrizarri bidali nion ale bat eta bere parte hartzea eskatu nionean, honako hau esaten zidan gutun batean adore emateko:

“Zuen asmo hau ateratzean, txalogarria da eta bidali didazun alea oso ederki dago, uste dut denok (nik bai behintzat) asko ikasi dezakegula horrelako aldizkariagaz. (87-1-24)”

Geroago apaltasun handiz desenkusatu gura izan zuen:

“Nere kolaborazioa eskatzen didazu. Pozik eta harroki izango nintzateke zuen lankidea ELE aldizkarian, baina zuek darabiltzazuen arloetatik gutxi dakit eta gainera nere euskera kaxkarra da.”

Dirudienez zinez lotuko nintzaion ezen, desenkusatzeagatik ere, hilabete bigarrenean lan bat bidali zidan (Yrizar 1987), gure orduko aldizkari hura ezbairik gabe sano aberastu zuena. Lanarekin batera honako berbok idatzi zizkidan betiko apaltasunarekin:

“Hara hor lantxo bat zuen aldizkariarentzat. Guztiz pozik bidaltzen dizut eta eskerdun, aukera hau eman didazulako.

Lantxo hau beste era batera nahiago baduzu, esan lasai. Mesedez zuzendu bere okerrak; ez dira gutxi izango. (87-III-8)”

Esan barik ere, irakurleak ulertuko duenez, ezer ez zen zuzendu eta bere hartan argitaratu zen.

Baina gatozkion eragon aditzari atzera ere. Zuazok (2003) bere liburuan aipatzen duen hedadura geografikoaren gora-behera horrez gain, erabilera eta esanguraren arazoak ere badauzkagu. Azkuek (1969b) bere hiztegia aditz honen esanguraz diharduenean, batetik “ocuparse, s´occuper eta bestetik murmurar, murmurer esangurarekin erabiltzen dela dino. Lehenengoz ikasi nuenean, aditz hau bigarren esangurarekin ikasi nuen Bedian. Jakina da, bestalde, moduan "ari izan", "jardun" edo "ibili" aditzen baliokide gisa ere erabiltzen dena. Euskaltzaindiaren Gramatikan (1987) honako hau ikus dezakegu:

"Hauetarik lehenbizikoa, -tzen + eragon alegia, Bizkaian erabiltzen da eta oso toki mugatuetan, Gernika aldean eta Arratia aldean, eta galtzen ari da egia esan (EGLU-2, 443)"

Idazle batzuen adibideak aipatzen dira jarraian eta hor kitatzen da kontua. Etxebarriak (1991) bere tesian aipatzen du defektibo moduan eta nor-nori-nork sailekotzat jotzen du[2]. Erabilerari bagagozkio, nik jaso ditudan adibide guztiak sailkatzeko bost multzo nagusi egin daitezke; galderak, fenomeno atmosferikoekin, datiboarekin, aditzondoekin eta perifrasi multzo moduan. Hona hemen adibide batzuk:

- **Galderak**:

1. Suek seri daragiosue? (Larrabetzu)

   *(Zuek zeri daragiozue?)*

2. Seri daragiotze? (Larrabetzu)

   *(Zeri daragiotsie?)*

3. Seri daragiotzesu? (Bedia)

   *(Zeri daragiotsazu?)*

- **Fenomeno atmosferikoekin:**

1. Eurie daragoyo (Areatza)

   *(Euria daragoio)*

2. Eurie baragio (Larrabetzu)

   *(Euria badaragoio)*

3. Odeye daragoyo (Orozko)

   *(Trumoia daragoio)*

- **Datiboarekin:**

1. Oneri yaragoyotxemat (Orozko)

   *(Honeri jaragoiotsanat)*

- **Aditzondoekin:**

1. Biarrian baragoyue (Larrabetzu)

   *(Beharrean badaragoie)*

2. Berbetan baragoyue (Larrabetzu)

   *(Berbetan badaragoie)*

3. Orreik yaragoyuena bearrean (Orozko)

   *(Horreek jaragoiena beharrean)*

- **Perifrasi multzoa:**

1. Tallatue arregletan baragoyue (Larrabetzu)

   *(Teilatua konponduten badaragoie)*

2. Indaba apartetan baragoyue (Larrabetzu)

   *(Indaba bananduten badaragoie)*

[2] Bertan ikus daiteke berak bilduko taula.

Txillardegik Euskaltzaindiarentzat prestatuko Euskal Aditz Batua liburuan (1979) Azkueri jarraikirik honako paradigma hau ematen digu:

- daragoiot
- daragoiok
- daragoion
- daragoio
- daragoiogu
- daragoiozu
- daragoiozue
- daragoie

Nire datuen arabera aditz hau ondoko herrietan erabiltzen da: Orozko, Zeberio, Zeanuri, Dima, Artea, Areatza, Igorre, Bedia, Larrabetzu, Lezama eta Sondika.



4. Irudia: Eragon aditzaren hedadura

Paradigmei dagokienez, bizkaieraren barietate askotan gaur ohikoak diren datibo morfema analogikoak (tsa, tse, e.a.) agertzen dira batzuetan (datibodun formak erabiltzen direnean) eta beste batzuetan ez (batez ere fenomeno atmosferikoan eta perifrasi multzoetan). Halandaze, "nork-nor" eta "nork-nori-nor" sailekoak daude; tauletan +/- NORI markatuko ditugu. Hona hemen herri batzuetako taulak:

| Larrabetzu | |
|---|---|
| -NORI | +NORI |
| daragiot | daragiotzet |
| daragiok | daragiotzek |
| daragiona | daragiotzena |
| daragio/daragoyo | daragiotze |
| daragiogu | daragiotzu |
| daragiosu | daragiotzesu |
| daragiosue | daragiotzesue |
| daragiue/daragoyue | Daragiotzie |

1.Taula: Larrabetzu

| Sondika | Lezama |
|---|---|
| +NORI | +NORI |
| daragiotzet | daragotzet |
| daragiotzek | daragotzek |
| daragotzo | daragotze |
| daragiotzu | daragotzu |
| daragiotzesu | darageotzesu |
| daragiotzesue | darageotzesue |
| daragotzie | daragotzie |

2. Taula: Sondika eta Lezama

| Dima | Zeanuri |
|---|---|
| -NORI | -NORI |
| daragoyot | daragoyot |
| daragoyok | daragoyok |
| daragoyona | daragoyona |
| daragoyo | daragoyo |
| daragoyogu | daragoyogu |
| daragoyosu | daragoyosu |
| daragoyosue | daragoyosue |
| daragoyue | daragoyue |

3. Taula: Dima eta Zeanuri

| Zeberio | Bedia |
|---|---|
| -NORI | +NORI |
| daragoyot | daragiotzet |
| daragoyok | daragiotzek |
| daragoyona | daragiotzena |
| daragoyo | daragiotzo |
| daragoyu | daragiotzu |
| daragoyosu | daragiotzesu |
| daragoyosue | daragiotzesue |
| daragoyue | daragiotzie |

4. Taula: Zeberio eta Bedia

| Orozko San Martin auzoa | |
|---|---|
| -NORI | +NORI |
| daragoyot | daragoyotzet |
| daragoyok | daragoyotzek |
| daragoyona | daragoyotzena |
| daragoyo | daragoyotzo |
| daragoyu | daragoyotzu/daragotzegu |
| daragoyosu | daragoyotzesu |
| daragoyosuei | daragoyotzesuei |
| daragoyoi/daragoyuei | daragoyotzei |

5. Taula: Orozko San Martin auzoa

| Orozko Urigoiti auzoa |
|---|
| -NORI |
| daragoyot |
| daragoyok |
| daragoyona |
| daragoyo |
| daragoyu |
| daragoyusu |
| daragoyusuei |
| daragoyoi |

6. Taula: Orozko Urigoiti auzoa

Batu ditugun aditz honen adizki alokutiboekin honako taulak osa ditzakegu:

| Larrabetzu | |
|---|---|
| (m) | (n) |
| yaragioat | yaragionat |
| yaragiok | yaragiona |
| yaragiuk | yaragiune |
| yaraguek | yaragiuena |

7. Taula: Larrabetzu alokutiboa

| Dima | |
|---|---|
| (m) | (n) |
| yaragiotxeat | yaragiotxenat |
| yaragiotxek | yaragiotxena |
| yaragiotxuk | yaragiotxune |
| yaragiotxiek | yaragiotxiena |

8. Taula: Dima alokutiboa

| Zeberio | |
|---|---|
| (m) | (n) |
| yaragoyoat | yaragotena |
| yaragoyok | yaragoyona |
| yaragoyuk | yaragoyune |
| yaragoyuek | yaragoyuena |

9. Taula: Zeberio alokutiboa

| Orozko | |
|---|---|
| (m) | (n) |
| yaragoyotxat | yaragoyotxemat |
| yaragoyok | yaragoyona |
| yaragoyotxau | yaragoyotxemau[3] |
| yaragoyuek | yaragoyuena |

10. Taula: Orozko alokutiboa

[3] “yaragoyotxune” ere bai.

## 5. Aipamenak


Arretxe, Jon (1994): *Basauriko Euskara*. Basauriko Udala

Azkue, Resurrección María (1969a): *Morfología Vasca: Gramática básica dialectal del Euskera*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo

Azkue, Resurrección María (1969b): *Diccionario Vasco-Español-Frances*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo

Badiola, Ricardo (2000): "Pedro de Yrizar Barnoya jaunaren omenez berba batzuk", Mendebalde Kultur Elkartea (2000): *Mendebaldeko Berbetearen Formalizazinoa*, Bilbo

Etxebarria, J. M. (1991): *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Ibaizabal, Zornotza

Euskaltzaindia (1987): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II*, Euskaltzaindia, Bilbo

Gaminde, Iñaki (1987): “Aoristoaren inguruan”. *Enseiukarrean* 3, 17-28 orr.

Gaminde, Iñaki (1988): "Eragon aditzaren inguruan" ELE-4, 37-42.

Gaminde, Iñaki (1999): *Bakio Berbarik Berba*. Labayru, Bilbo

Gaminde, Iñaki (2004): *Berango Berbarik Berba*. Berangoko Udala, Bilbo

Irigoien, Alfonso (1985): *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*. Bilbo

Mitxelena, Luis (1954): *"Un catecismo vizcaino del siglo XVII"* BAP, 85-95 orr.

Mitxelena, Luis (1964): *Textos Arcaicos Vascos*. Minotauro, Madril

Txillardegi (1979): *Euskal Aditz Batua*. Euskaltzaindia, Donostia

Yrizar, Pedro de (1987): "Bonaparteren sailkapenari buruz" ELE-3, 97-104

Yrizar, Pedro de (1992a): *Morfología del verbo auxiliar Alto Navarro septentrional: Estudio dialectológico*. Euskaltzaindia, Nafarroako Gobernua. Iruñea

Yrizar, Pedro de (1992b): *Morfología del verbo auxiliar Alto Navarro meridional: Estudio dialectológico*. Euskaltzaindia, Nafarroako Gobernua. Iruñea

Yrizar, Pedro de (2003): "Evolución del euskara" FLV-94, 483-487 orr.

Zuazo, Koldo (2003): *Euskalkiak Herriaren lekukoak*. Elkar, Andoain